

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Osteguna, 2011ko ekainaren 23a. VIII. urtea. 2.249. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)

## Natura eta ekologia oinarri dituen landetxea zabaldu dute Berrobin

Eugenia Agirretzek eta Fermin Zabalak duela bi aste zabaldu zuten garai bateko baserrien itxura duen ostatua; bisitariak etxe erdia edo osoa alokatzeko aukera dute

Inbertsio handia eskatu duen proiektu bat den arren, gerora begira aurrezteko modu bat dela uste dute landetxearen arduradunek ◯3



Eugenia Agirretxe eta Fermin Zabala eguzki plaken aurrean. M. UGARTEMENDIA

### San Joan suak herrietako jaiekin bat egingo du

Abaltzisketan, Belauntzan eta Tolosan gaur emango diote sanjoanei hasiera ◯4-5

**Aitor Biain** Udaleku artistikoetako arduraduna

### «Diziplina artistikoa bultzatzea eta ondo pasatzea da xedea»

Uztaileko lehenengo hamabostaldian haur eta gaztetxoek aukera berri bat izango dute ◯2

### Frontenis Txapelketaren finalak jokatu dira asteburuan

Baliarrainen partidak ikusteko aukera egongo da larunbatean eta igandean ◯6

### Amezketako bidegorriarekin keXu agertu dira hainbat herritar

«Sei metroko zabalera» izango duen bidea zertarako nahi duten galdetu dute ◯6





Herenegun egindako bilkuraren irudia. HITZA

## Tolosa, sormenaren eta parte-hartzearen bilgune

Emun enpresa herriko eragileekin bildu da Kultur Plana egiteko; ondorio nagusiak aurkeztu berri dituzte

Rebeka Calvo Tolosa

Apiriletik hona Emun enpresako kideak Tolosako hainbat kultur eragilerekin bildu dira Kultur Plana egin asmoz. Udalak egin zien eskaria orain hilabete batzuk, eta plan estrategikoa egiteko hiru taldeetan aritu dira kultur eragileak bilerak eta ekarpenak egiten, eta bestalde, udaleko kultur teknikari eta bestelako langileek ere eman dituzte beren iritzia.

Bilera horietan gutzietan egindako ekarpenak bilduta, Emun enpresako kideek herenegun aurkeztu zituzten ondorio nagusiak. Helburu nagusia «Tolosak bereak dituen sormena eta parte-hartzea indartu eta garatu» behar direla da, izan ere, herriak kultur arloan dituen bi ezaugarriak dira hauek; sortzaile asko daudela Tolosan, eta herritarren parte-hartzea handia dela.

Horiek horrela, hau gauzatzeko lau estrategia aurkeztu zituzten. Batetik, koordinazioa lantzearen beharra nabarmendu zuten. Bide honetan «kultur ehuna sendotu» behar dela argitu zuten. Era berean, heziketa aipatu zu-

ten. Hau da, kultur ezagutza eta ohiturak barneratu behar direla ondorioztatu dute. «Eragileek baliok garatu behar direla, euskal kultura ezagutu eta baloratu behar direla, beste kulturen ezagutza zabaldu behar dela, eta kultura herritarrengana gerturatu behar dela azaldu digute», esan zuten.

Hirugarren estrategiatzat irudia aipatu zuten: «Sormena eta parte-hartzea zaindu behar dira, eta bide horretan, herritarrengana iristeko bide berriak ireki behar dira, eragileek kultur eskaintzaren presentzia areagotu, eta herri sortzailearen eta parte-hartzailearen irudia zabaldu».

Azpiegituren atalari dagokionez, azken atala, kultur ekitaldiak «lau paretetik atera», eta kalera atera behar direla ondorioztatu dute. «Azpiegiturek saineatu behar dira, eta behar berrietara egokitu, eta baita kultura kalera atera ere», azaldu zuten.

Hau guztia kontuan hartuta 35 ekintza proposatu dizkio Emuneko udalari, eta horietatik 6 aipatu zituzten hereneguneko aurkezpenean: Koordinazioa gunea sortu behar da, azpiegiturek egokitu, transmititzen diren baloreak zaindu, programaziorako irizpideak zehaztu, komunikazio bide berriak landu, eskaintza bereziak egin (zine bonoak aipatu zituzten, zentzu honetan), eta sormena eta parte-hartzea indartzea eta gartzea.

## Aitor Biain ◊ Udaleku artistikoetako arduraduna

Uztaileko lehenengo hamabostaldian, Tolosako haur eta gaztetxoek musikaz, dantzaz eta arteez zer bait gehiago ikasteko aukera izango dute 'Muak' udaleku artistikoetan.

## «Musikak balore asko transmititzen ditu»

### Itzea Urkizu

Datorren uztailearen 4tik 15era bitarte, udaleku musikalkak izango dira Tolosako Eduardo Mokoroa musika eskolan. Astelehenetik ostiralera, musika hari nagusi hartuta bestelako diziplina artistikoan ezagutu eta lantzeko aukera izango dute haur eta gaztetxoek.

Udaleku artistiko hauetako arduraduna da Aitor Biain onatiarra. Txikitatik musika munduan aritutako mutil honek, klarinete saxofoi eta kantua ikasi zituen. Gerora, Euskal Herriko Abesbatzen elkartearen zuzendaritza ikastaroetan aritu zen izen handiko zuzendariekin, eta gaur egun hainbat abesbatzetako zuzendaria; Lazkaoko musika eskolan ere irakasle moduan aritzen da, gainera. Udaleku artistikoen nondik norakoak kontatu dizkio TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkariari.

### Nork antolatzen ditu udaleku artistikoak?

Udaleku musikalkak hauek Artekin enpresak antolatzen ditu. Enpresa honek arte artistikoak bultzatzeko helburua du, eta hori dela eta, udalekuak, kurtsuak eta hainbat ekitaldi berezi antolatzen ditu. Uda honetan, bai Gipuzkoan, bai Bizkaian, *Muak* udalekuak antolatu dituzte alde batekin, bestalde, *Karrikan* ere bai. *Muak* 4 urtetik 12 urtera bitarteko haurrei zuzendutako udalekuak dira, eta *Karrikan* deiturikoa, berriz, gaztetxoagoi begira-



HITZA

ko zer bait da; hauek breakdancera, graffitti-ak eta antzekoak egiten dituzte. Beraz, bi aktibitate nagusiak *Muak* eta *Karrikan* dira.

### Udaleku hauen helburu nagusia zein da?

Batez ere arte artistikoak bultzatzea da helburua, eta hau guztia modu dibertigarrian burutzea. Izena ematen duten ikasleek, gainera ez dute zertan ezer berezirik jakin behar, ez dute musika jakin behar, edo breakdance egiten jakin behar. Azken finean, era ludiko batean diziplina artistiko horiek bultzatzea eta ondo pasatzea da, udalekuek irauten duten bitartean.

### Zein motatako ekintzak burutuko dituzte izena ematen duten ikasleek?

Tolosako udaleku musikaletan,

nolabait, lau adar nagusi izango dira. Dantzaren esparruan, dantza modernoa egingo dute haur eta gaztetxoek; era berean, musika ere landuko dute, instrumentuekin, entzunaldiekin eta joku musikalekin. Abesbatzabatean abestea zer den ere ezagutuko dute, eta kantuei koreografiak eta antzerkitxoak sartuko dizkiegu, musikaren bitartez dramatizazioa landuz. Azkenik, jolasak ere egingo ditugu, soinketako eskoletan egiten diren jolasen antzekoak. Horrela beraz, ikasle bakoitzak beti izango ditu lau irakasgai horiek, eta egunean zehar txandatu joango dira, irakasle desberdinekin.

### Europako beste herrialde batzuetan, nahitaezko hezkuntzan musika eta dantza bezalako diziplinak irakasten dizkiete ikasleei. Haur eta gaztetxoek ikasketetan arteak zer aporta dezake? Hemengo hezkuntza sisteman garrantzia handiagoa eman behar al litzazioke?

Egia da, bai, hemen ez zaiela hainbeste garrantzia ematen musikaren alorrari eta diziplina artistikoei. Musikak gauza asko ditu bere atzean; sentsibiltatea lantzea, talde lanaren dinamismoa bultzatzea, eta abar. Gainera, musika egiten duen pertsona batek askoz ere kontzentrazio hobea lortzen du, kontzentratzeko beste era bat du. Balore hauek oso garrantzitsuak dira pertsona batengan, eta txikitatik lantzen badira, gero asko garatu daitezke. Beraz, garrantzitsuak direla uste dut, bai.

## Errekortarien festa izango da igandean

Tolosako zortzi hoberenak 2011ko Tafallako errekkortarien finalerako sailkatuko dira

### I. Urkizu

Zazpigarrenez ospatuko dute igande honetan, Tolosako errekkortari txapelketa.

Sanjoanen egitarauaren ba-

rruan, arratsaldeko 18:00etan hasiko da jaialdia zezen-plazan.

Guztira, 16 errekkortarik parte hartuko dute, eta zezenak Macua ganadutegikoak izango dira. Lau errekkortari onenek, Tolosako txapelketako irabazlea nor izango den erabakiko duen finala jokatu dute. Era berean, Tolosako ekitaldian, Tafallan jokatu duen 2011ko errekkortarien finalerako zortzi gizon sailkatuko dira.

Iazko Tafallako finalean zezen batek ikusleengana salto egin eta

ikusleak zauritu ondoren, txapelketa bertan behera geratu zen. Hau dela eta, aurtengo txapelketara begira «ikusmin handia» sortu dela nabarmendu dute antolatzaleek.

### Hamasei errekkortari

Aipatu bezala, hamasei errekkortarik parte hartuko dute Tolosako San Joan Jailetako jaialdian; ondorengoak dira: Tomas Perez, Fran de Santa Eugenia, Cristian Parra, Eloy Puello, Raul Ramirez, Fernando Pozuelo «El Rubio», David Cabo, Joseba Uterga, Oscar Holgado, Saul Rivera, Joel Rodriguez, Juanjo Marti, Ruben Sanchez, Moy, Isaac Alvarez Puzol eta Andres Civera.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Telleria landetxea Berrobiko herrigunetik minutu batzuetara dagoen ingurune lasai batean kokatuta dago; bertan aritzen dira lanean Eugenia Agirretxe eta Fermin Zabala. M. UGARTEMENDIA

# Izaera ekologikoko landetxea

Duela bi aste zabaldu zuten natura eta ekologia oinarri dituen landetxe hau; jada jaso ditu lehenengo bisitariak

**Maier Ugartemendia** Berrobi

Eugenia Agirretxek eta Fermin Zabalak orain dela hamaika urte erabaki zuten ekologiaren aldeko apustua egitea. Biolur Elkartea sortu berriaren elkarteko kide egin ziren berrobitarrek, eta hasieran jendeak zer egin behar ote zuten galdetzen omen zieten, baina beraiek proiektuarekin aurrera egitea erabaki zuten, eta 1990. urtean barazki ekologikoak eta landareak produzitzen hasi ziren. Orduz geroztik, feriaz feria ibili dira senar-emazteak.

2007. urtean, ordea, aurrera-

pauso bat ematea erabaki zuten, eta gaur egun, Telleria landetxea denaren proiektua lantzen hasi ziren. Azkenik, 2009. urtean hasi ziren ekolandetxean lanean. Landetxe hau ekologiaren filosofiarekin egina dago, Zabalak dioen moduan «naturaren energia eta balore guztiak aprobetxatu» dituzte: argitasuna, berotasuna, eguzki izpiak... Dena ongi pentsatuta eta antolatuta dago.

Ettxeari «garai bateko base-rrien itxura» eman nahi izan diote, honela lehena eta orainaren arteko lotura bat eginez. Etxea bi zati berdin-berdinetan banatuta

dago. Biek sukaldea, egongela eta bainugela duen gela nagusi bat dute beheko solairuan, eta goiko solairuan ere beste gela batzuk eta bainugela dituzte. Gela haue-tatik ingurune berde bat ikus daiteke. Bisitariak landetxearen erdia edo landetxe osoa alokatu ahal izango dute, eta hortik aurrera inguruneaz gozatzea besterik ez dute. Lasaitasuna nahi duenak bertan aurkitu ahal izango du, benetan ingurune lasai batean kokatuta baitago Telleria landetxea.

## Natura energia iturri

Landetxea 3 astetan eraiki zuten, enpresatik «blokeak muntatuta ekarri zituzten eta gero puzzle moduko bat egin zuten». Eraiki-nari itxura azkar eman zioten arren, denbora gehiago behar

izan zuten barruko sistemak martxan jartzeko. Ettxearen «estruturura berezia» da isolamenduari dagokionean, izugarriko isolamendu termikoa baitu. Materialari dagokionez, berriz, eraikinak ez du adreilurik; dena «egurrarekin eta isolamendu ona duen materialekin» osatua dago.

Horrez gain, naturaren baliabideak erabiliz berogailua eta argia naturalki lortzen dituzte. Berogailua geometria sistemaren bidez dago martxan. Horrek esan nahi du lurrazpiko berotasuna aprobetxatzen dutela etxeko berogailurako eta dutxan edo bainugelan ur beroa izateko. Berotasun hori, esan bezala, lur azpitik ateratzen dute. Horretarako, 90 metroko bi hoditan ura zirkulazioan ibiltzen da, eta uraren misioa beheko temperatura gora igotzea da. Ur hori 14 gradu ingurutan igotzen da, eta beste tresna baten bidez 60 gradutara igo eta bere horretan mantentzen da.

Sistema honen bidez, gastuen

%75a aurrezteko lortzen da. Geratzen den «%25eko gastua elektrizitatearekin gastatzen dena» da. Eugenia Agirretxek eta Fermin Zabalak «orain inbertsio handia» dela, baina, «gerora ordaina jasotzen joaten» zarea diote. Alegia, hasiera batean inbertsio handia egin behar den arren, gerora berrigara aurrezteko modu bat da.

Energia sortzeko beste sistema bat eguzki plakena da. Beraiek sortutako indarrarekin bere buroa hornitzeko adina lortuko lukete, eta baita gehiagorako ere; baina, energia hori beraiek erabili ahal izateko tresna berezi batzuk beharko lirarteke. Hori dela eta, Plaka hauek sortzen duten argi indarra Iberdrolari saltzen diote, eta hauek argi indarra ematen diote.

Hemendik aurrera, proiektuak «indarra hartzea» eta «arrakasta izatea» espero dute Zabalak eta Agirretxek. Beraiek «merkatua jarri» dute, eta orain hori merkaturatzea dute helburu.

## Iragarki laburrak

### LANA

■ **Ile apaintzailea.** Tolosako ile apaindegi batek, esperientziadun pertsona bat behar du lanaldi osorako. Interesa dutenek, dei dezatela 625 70 50 59 telefono zenbakira.

■ **Zerbitzaria.** Amezketako taberna batean, asteburuetan lan egiteko zerbitzaria behar dute. Interesatuak deitu 605 72 77 30 telefono zenbakira.

■ **Zerbitzaria eta sukaldaria.** Tolosako ostalaritza zentro batean, zerbitzari bat eta sukaldari bat behar dituzte udaran lan

egiteko. Ezinbestekoa da esperientzia izatea. Lanaldi osoa, goizez eta arratsaldez. Interesatuak bidali curriculumak [info@cmujika.net](mailto:info@cmujika.net) helbide elektronikora. Orain arte helbide elektronikoa gaizki jarri dugu; beraz, garrantzitsua da curriculumak helbide berrira bidaltzea.

### ALOKAIRUAN

■ **Apartamentua.** Peñiscolan, zazpi pertsonentzat egokitutako apartamentua alokatzen da. Hondartza aurrean. Balkoia, igogailua, aire egokitua eta bi

igerileku ditu. Interesatuak deitu 617 42 89 52 telefonora.

■ **Etxebizitza.** Uztailan, abuztuan eta irailean etxebizitza alokatzen da Jaka eta Peñiscolan. Interesatuak deitu 635 737 0043 telefono zenbakira.

### SALGAI

■ **Quad motorra.** 2004 urteko Suzuki LTZ-400 Quad-a salgai. IAT-a pasata, gehigarri askorekin eta oso egoera onean. Interesatuak deitu 600 75 25 37 telefono zenbakira.

"Xirimiri"

Xirimiri

Txokolategia

Ondo pasa sanjoanaki!

Errementalari kalea, 40  
20400 Tolosa

Telef. 943 67 52 23

San Joan bezpera eguean izpiritu txarrak erretzeko ohitura dago Euskal Herrian, eta herri eta baserri guztietan sua egiten da. Abaltzisketa, Belauntza eta Tolosan herriko festak ospatzen dituzte.

# Urteko gau magikoa sutan



**N. Ugarte-Mendiola - E. Maltz**

San Joan egunekoak da urteko gaueko magikoa eta eguneko luzeak. Aspaldiko ohituren jarraitza, Tolosaldeko eta Leiztaldeko herri guztietan benien izpiritu txarrak uxatzen ari dira gauean. Legenda edo tradizioaren arabera, gaueko eguzter hiru aldi egin behar da sulo suaren gainetik. Horrela egiten duenak gaitzak uxatuko omen ditu, eta urte on bat izango du aurrerik.

Nahiz eta San Joan gauek sua herri guztietan egin, Tolosaldeko herri herrietan San Joan jaia ospatzen dituzte. Abaltzisketan eta Belauntzan suarekin emango diote hasiera jaiak, eta Tolosan, 18:30ean jarriko duten suarekin lehenetako da jaiak. Erraldiak eta buruhandiak aterako dira Tolosaldeko dultzairekin batera. Plaza Zaharretik, 19:00ean, Zerkasian bertso jaialdia izango da Amalia Aguirre, Bixente Gorostidi, Bor Zabehilak, Jexux Marz Iratza, Añun Gorostidi eta Berak Igarrenekin. 23:00etan Yuktan eta Lobo Electric musika taldeen emanaldia izango da plaza berriaren Ondoren DJ Pintzakak ahalikatu du gauea.

Anoeta ere festetan murgiltuta dago. Korpuz eguneko umak eta mozoarok izango dira protagonista.

## Belauntzako San Joan Jaia

- EKAINAK 23, GAUR**
- 21:00. Kampaien doinuarekin batera San Joan sua pitu eta festak hasiera emango da.
  - Ondoren, Trikitilariak Herriko Tabernan.
- EKAINAK 24, BIHAR**
- San Joan eguna**
- 08:00. Diana, Berastegiko txistularien eskutik.
  - 11:00. Meza nagusia.

- Ondoren, Herriarentzat hamaiketako herriko tabernan, udalak eskainta.
- Jarrikan, Bertsolariak Zuberio eta Mutiloan.
- 16:30. Herriko gaztekoen arteko pilota partidak.
- Seginan, Nurtzango eskolako pilotariak: Ansoletzi - Maritela, Armendariz - Bergeraren aurka.
- 21:00. Herri afaria, Ondoren, Astiazaran analak eta Leire trikitilariaren erromeria.

- EKAINAK 25, ETZI**
- Haurren eguna**
- 11:00. Haurrentzako marrazki lehiaketa.
  - 15:00. Haur jolasak, plaza berriaren Jokaltzaren eskutik.
  - 17:30. Herriko erakustaldia Ibarra Sokatira Taldearen eskutik.
  - 21:00. Saiheski jatea, udalak eskainta.
  - Ondoren, Xanti eta Juanito trikitilariaren erromeria.
- EKAINAK 26, IGANDEA**
- 11:00. Meza nagusia izango da.
  - Ondoren, Toka Txapelketa eta hamaiketako herriarentzat.
  - 12:30. Zaldi proba: Belauntzako Etxeberrieta Zizurkilgo Areta.
  - 16:00. Mus Txapelketa, herriko tabernan.
  - Iluntzean, Pintxo lehiaketa egingo dute.

## harpidedun izateak badu saria zozketa

**1 Otordua**  
Casa Julian Jatetxean  
2 laguntzako bazkaria edo afaria  
Santa Klara, 6 • Tolosa  
Tel.: 943-671 14 17  
www.casajulianjatekxan.com  
Telefonoz parte hartzeko eskaintza zerbitua: 51

**2 Bi ile mozketara**  
Frida ileapaindegian  
bi ile mozketara  
Letxuga kalea, 2 • Tolosa  
Tel.: 943-57 68 91  
www.fridaileapaindegi.com  
Telefonoz parte hartzeko eskaintza zerbitua: 52

**3 Abentura parkea**  
Txindokiko Itzaleko Mariren Zuhaitztrako  
hiru laguntzako bina sarrera  
Larraz • Abaltzisketa  
Tel.: 943-40 43 67 • 628-94 72 53  
www.txindokioitzaleko.com  
Telefonoz parte hartzeko eskaintza zerbitua: 53

**4 Aquariuma**  
Donostiako Aquariumean  
3 laguntzako bina sarrera  
www.aquariumss.com  
Telefonoz parte hartzeko eskaintza zerbitua: 54

Parte hartzeko delia edo izazki: 902-82 02 40 / txokoahitza.info (harpidedunen koda, izena, herria, eta zehazkiaren parte hartu nahiz duzun garbi adierazteko) Kudeatzailearen, antolatzailearen eta zozketaren gaineko erantzukizuna zuzenean hartzen duen pertsona bati dagokio. Zozketaren ondorioz gertatzen diren gaitzespenak ez dira erantzule.

## Ekainak 23, San Joan Bezperako egitaraua herri herri

- ABALTZISKETA**
- 21:30. San Joan sua pituko dute. Jarraian, San Joan dantza eta sokadantza egingo dituzte herriko gazteok.
  - 22:30. Asto lasterketa.
  - Ondoren, Dantzaldia Kupela taldearekin izango da.
- ADUNA**
- 20:30. Sua pituko dute, eta Amaluren emankortasun erri-

- du eta jatekoa bakoitzak bera eraman beharko du.
- ANOETA**
- 19:00. Buruhandi eta erraldien kalejira herriko txistulariekin.
  - 20:30. Herri afaria plazan.
  - 22:15. Txalapartariak San Joan bezperako suaren jala iraganiko dute.
  - Ondoren, Suaren inguruan San Joan Zortziko kantak eta

- BERRROBI**
- 21:00. Sua egingo dute Urbita baserriaren inguruan.
- BELAUNTZA**
- 21:00. Kanpai doinuekin batera San Joan sua pituko dute, eta festak hasiera emango dute.
  - Ondoren, Trikitilariak herriko tabernan.
- BERASTEGI**
- 09:30. Eskolako umeek beaien aktibazioak eskainiko dituzte. Ondoren, boriko egosia eta adarrik banatuko dituzte Guraso elkarteekek.
  - Aratsaldean, Urtean dantza, trikitia eta panderoa, judo erakustaldia.
  - Iluntzean, Afaria egingo dute frontoian. Norberak eraman behar du jatekoa, eta Guraso Elkartek adarrik eta kafea jarriko ditu.
  - Ondoren, San Joan dantza dantzatuko dute.

- LEITZA**
- 18:00. Haurrek inguruetara dantzatzeko dute. Ondoren, bistroraren ogitarteak banatuko dituzte.
  - 21:30. Udalak 1.000 lagunentzako mahaiak, edaria eta ogiak jarriko ditu.
  - Ondoren, Sua pituko dute. Musika eta txaranga izango da. Tabernak gau osoan irekita egingo dira.
- ORENDAIN**
- 21:00. Herri afaria egingo dute.
  - 22:00. Sua pituko dute plazan.
- OREXA**
- 20:00. San Joan sua pituko dute plazan.
  - Ondoren, Herri afaria egingo dute.
- TXARAMA**
- 21:00. Afaria egingo dute.

- Ondoren, San Joan sua pituko dute.
- TOLOSA**
- 22:00. San Joan sua Andre Maria plazan egingo dute udalbatza bertan dela. Ondoren, Udaberri Dantza Taldeak eta Tolosaldeko Musika Bandak jarriko dute.
  - Ondoren, San Joan Zortziko jondoren musika banda kalez kale ibiliko da. Jarraian, Hodelieritz abesbatzak kantatuko du.
- VILLABONA**
- 22:00. Sua pituko dute Erretxer plazan. Oinikari eta Oinargi dantza taldeak eta Eresargi abesbatza izango dira.
- ZIZURKIL**
- 22:00. Udaltze aurrean sua eta txokolatada egingo dute.
  - 22:30. Herriko plazan sua, dantza eta zizka-mizkalko izango dira.



- Sua egingo dute abestuz eta dantzatuz.
- 21:00. Afaria egingo dute Txuboli ekarteran.

- erromeria. Marikoz Landa ataria semeak olin soinuarekin.
- ARESO**
- 21:00. Afaria egingo dute herriko plazan. Norberak bere jantzi eraman beharko du. Edaria Guraso Elkartearen eta festa batzordearen kontu izango da.
  - 22:00. Suak pituko dituzte plazan. Txokola-haurmentzako eta bestea handilagoa, helduentzako.

- BIDEGOIAN**
- 20:30. Bidania guneko parkean elkartuko dira, norberak afaria emango du eta edaria Udalak eta Ermo Gurasoen Elkarteak jarriko du.
  - Ondoren, San Joan sua pituko dute.

- HERNIALDE**
- 20:30. Norberak eraman da afaria egingo dute. Udalak Zahagi ardoak jarriko du.
  - 22:30. Sua pituko dute dantza egingo dute.

- IBARRA**
- 21:30. Sua pituko dute eta dantza egingo dute.
  - 22:00. Erromeria izango da.

- ALEGIA**
- 20:45. Pedro Jose Iguain adegialarri konposatutako Salve Regina abestuko du Txintzarri abesbatzak Joan santuaren izena daraman elizan.
  - 21:00. San Joan sua pituko dute herriko plazan. Txintzarri abesbatza, Sutarri dantza taldea eta herriko txistulariek alaituko dute gaua, eta Borden Dantza taldearen doinu entzuteko aukera izango dute.

- ASTEASU**
- 20:30. Txalapartariak lagunentzako sua pituko dute. San Juan dantza dantzatzeko dute txistularien eta Oinikario dantza taldearen laguntzarekin.
  - Ondoren, Txokolatita berora banatuko dute eta herriko trikitilariak arko dira giroa alaitzen.
- BALIARRAIN**
- 21:20-20:00. Zahagi ardoak egingo dute. Jantzi norberak eraman beharko du berea.
  - 22:00. Sua pituko dute. Eguraldi ona bada San Juanen, eta bestela pilotalekuaren inguruan egingo dute.

- IKAZTEGIETA**
- 20:00. Herri afaria egingo dute herriko plazan Udalak jarriko du.
  - 22:00. Sua pituko dute, eta bere inguruan dantza egingo dute.
- IRURRA**
- 22:00. Sua pituko dute herriko plazan. Sua herriko dantza-taldeen dantza alaitzeko dute, eta Udalak ardo goxoa eta pastak banatuko dute.

- LARRAUL**
- 21:00. Afaria egingo dute.
  - 22:00. Sua pituko dute plazan.

www.euskalherriko Plaza.com

## ESKAITZA

(uztailaren 30era arte)

Ardo zuri hau egiteko, viura mahatsa erabiltzen dugu, erabat Mahatsondoek 46 urte dituzte, batez beste, eta 500 eta 500 metrotako garaieran daude. Mahatsa eskuzt biltzen da.

12 botilako kaxa: 43 €

Oliba olio birjina estra, 9000 arabekina, Nafarroako Oliba sork-markakoa. Hotzean egina da, olibak bildu eta hamabi ordu igaro baino lehen.

6 botilako kaxa: 36 €

Eskaeria egiteko, sartu  
www.euskalherrikoPlaza.com  
helbidean



# Asteburuan erabakiko dira fronteniseko txapelkunak

IV. Frontenis Txapelketako azken kanporaketak eta finalak jokatu dituzte larunbata eta igandean

**Imanol Garcia** Baliarrain

Baliarraingo IV. Frontenis Txapelketaren irabazleak jakingo dira asteburu honetan, igandean zehazki. Finalak baino lehen, azken kanporaketak larunbatean egun osoan eta igande goizean jokatu dira.

Final zortzirenak 10:00ak inguruan hasiko dira larunbatean. Arratsaldean final laurdenak jo-



Pasatu den asteburuan hainbat kanporaketa jokatu dituzte. I. GARCIA

katuko dituzte. Igande goizean finalerdien txanda izango da eta arratsaldean jokatu dira 3. eta 4. posturako partida eta finala. Hori mutiletan izango da. Baliarrainen banaka jokatzeko dute.

Neskei dagokionez, binaka jokatzen dute eta aurten hiru bikote aurkeztu dira. Ligaxka bat jokatuko dute denen artean igandean, eta hortik aterako da bikote irabazlea.

# Herritar talde batek bidegorriaren proiektua kritikatu du

Bidegorriak Ugarte eta herrigunearen arteko «soro eta zelairik hoberenak» hartuko dituela diote

**I. Garcia** Amezketara

Amezketako herritar talde batek Ugarte auzotik herrigunera aurreratu dagoen bidegorriaren proiektua kritikatu du ohar batean. Bidegorriak errepide bazterretik soroetan barrena sei metro zabal hartuko dituela diote eta horren kontra azaltzen dira: «Zertarako hainbeste metro? Edozein herritar erreparatzen baduzue, bidegorriek metro bat, edo bi, izaten dituzte gehienez».

Amezketatik Ugarterainoko «soro eta zelairik hoberenak» hartuko dituela diote. «Zer kristotararako behar duzue sei metro asfaltatuko dituen bidegorria?», galdetzen dute.

Ur zikinak bideratzeko kolektorearen obrak ere aipatzen dituzte oharrean. Kolektorearen bideratzea «errekaren albotik lurperatuz» egin ohi dela dio herritar taldeak. «Kontua da, ideia galanta bururatu zitzaioela norbaiti eta Foru Aldundiak onartu: Kolektorea erreka bazterretik pasa beharrean errepide bazterretik pasatzen badugu eta honen gainean bidegorria eraiki?». Herritar taldeak adierazi duenez, «gakoa, eta tranpa, hemen dago gure ustez: oinarritzko behar bat, kolektorea, hain oinarritzkoa ez den proiektu batekin nahastea, bidegorria; nekez justifika baitaiteke hainbeste

lur galtzea erabiliko ez den, eta neurri faraonikoak dituen bidegorri bat egiteko».

Horrelako egitasmoen atzean «filosofia oker bat» ezkutatzeko dela diote: «Lurraren balioa termino ekonomikoetan soilik neurtzea; plan txikiak, xumeekiko mespretxua, eta, egitasmo handiustekoak lehenestea; herri txikien beharren eta garapen eredu nagusien arteko distortsioa...».

## Bi «irtenbide»

Herritar talde horrek bi «irtenbide» proposatzen ditu. Alde bateatik, bidegorria errekararen ondoan egitea: «Aukera honek ere eragina izango luke soro eta bazterretan, baina askoz txikiagoa litzateke. Abantailak ere baditu aukeraren: errepide ondoan ez bezala paseoan edo bizikletan ibiltzeko beste lasaitasun eta patxada bat eskaintzen du. Askoz egokiagoa eta jasangarriagoa dela bi hitzetan».

Beste aukera «asfaltoari tokia lapurtzea» da eta «ez hain eskas daukagun lurrari». Tolosatik Ordiziara doan N-1 errepide zaharra 7,5 metro zabal dela diote eta bertan egin duten bidegorriak 2 metro neurtzen dituela. Amezketako Ugarterainoko errepidea 10 metro zabal dela azaltzen dute eta tarte batean 2 metroko espaloia duela. «12 metrotan erraz asko sartzen dira errepidea eta bidegorria, eta baita erretena ere», diote. «N-1 zaharrean 10 metrotan txukun asko doaz kamioiak lantegira eta bizikletak eta oinezkoak paseoan. 18 metroko zabalera hartuko lukeen bidea astakeria hutsa da eta kito», gaineratzen dute.

## Irudia > Alegia



# DENBORALDIARI AMAIERA EMAN DIOTE

Intxurre futbol elkartekoek denboraldi amaierako ohiko afaria egin dute berriki. Bertan banatu ziren talde bakoitzeko jokalarionen sariak: infantil mutiletan, Andoni Agirrezabala; infantil nesketan, Alazne Garmendia; kadete nesketan, Bego-

ña; kadete mutiletan, Endika Rezola; jubeniletan, Jon Hernandez; eta Preferente mailan, Mikel Ormazabal. Argazki batean, afariko une bat, eta bestean, jokalarionen sariak beraien entrenatzaileekin. PATXIRENOBALES

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak urteurrenak eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

**HILETAREN BALIOA** Txina Inperiala

Funeraria Vascongada ere pertsona bakoitzak bere neunik hileta izan behar duela. Horregatik, alor horretan lider garenez, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Berreskurazina da galdu duzuna, baina laguntza eskainiko dizugu dena erazagarria izan dadin.

**FUNERARIA VASCONGADA** EHOZKETAK

902 402 900

www.funerariavascongada.com

## Alkateen elkarrizketak →

Luixa Uzkudun ◊  
Leaburu-Txaramako alkatea

## «Denok nahi dugun herria, denon artean egin dezagun»

A. Imaz Leaburu-Txarama

Bederatzi urte daramatza Luixa Uzkudunek (Errezil, 1966) Leaburu. Bilduko zerrendaburu bezala, alkate izatea egokitu zaio oraingoan.

**Herritarren gehiengoak berriro ere badu ordezkari-tza udaletxean.**

Zortzi urte hauetan herritarren gehiengo ordezkatu gabe egon da. Duela lau urte, ilegalizazioaren ondorioz, kargua hartu zuten ez zituen herriak hautatu gobernu osatzeko; oposizioan egon behar zutenak ziren. Herri honen hitza, beraz, ez zen errespetatu. Ez dut haiak azken urteetan egin duten lana baloratuko, ez zelako zilegi beraiek kargua hartzea.

Orain, Bilduk lau zinegotzi ditu eta Bide Berriak hiru. Gu arlo honetan esperientzia gabeko jendea gara, bi oso gazteak eta beste biak ez hain gazteak. Zeretik hasi beharrea aurkitzen gara.

**Nola aurkitu duzue udala?**

Oraindik ikusten ari gara, ezin dut gehiegi esan. Gu ilusioz sartu gara, gure proiektuak aurrera eramateko asmoz. Ardura handiz egin nahi ditugu gauzak, errespetu handiz.

**Tira bira ugari izan dira herrian azken lau urte hauetan.**

Zer gertatu den ahaztu gabe aurrera begiratu beharra daukagu, herriak hori eskatu baitigu. Botoa eskatzen ibili ginenean, jende batek hori esaten zigun: «Herri



A. IMAZ

honetan behingoz bakea egin ezazue!». Ez gara Ghandi, eta ez dakit horrenbesteko ahalik dugunik. Baina gutxien gutxien, udal-txe herritar guztiei ireki nahi diegu; udaletxeak edozein herritarren eskura egon behar du, hona etorri eta inolako beldurrik gabe bere iritzia eman dezan. Herria egiten, gurekin batera, herritarrek izan behar dute partaide; denok nahi dugun herria, denon artean egin dezagun.

**Lau urte hauetarako zein dira zuen proiektu nagusiak?**

Behar handiena urarekin dauka. Hemen, ia egunero urarekin

badugu arazoren bat. Ubideak berri eta depositu berri bat egiteko asmoa daukagu. Lau urte hauetako erronka nagusia hori dela uste dugu, behingoz arazoa konpontzeko. Gero beste hainbat gauza ere badira, pistak berrizatu eta argiztatzea bezalakoak. Udaletxe txikia dela ere kontuan hartu behar da; zergen bidez gutxi biltzen da, eta diru laguntzen arabera jokatu behar izaten dugu.

**Lau zinegotzirekin pentsatu al duzue nola antolatu udala?**

Herri handiagoekin alderatuz, batzorde gutxiago izaten dira hemen. Festa batzordearen inguru-

ruan Kultura batzordea eratzeke lehen pausoak eman dira, baina oraindik eraketa lan horretan jarraitzen dugu.

**Bilduk zer bait azpimarratu baldin badu kanpainan, herritarren parte hartzea da. Hori nola bideratzea pentsatzen duzue?**

Batzar bidez funtzionatuko dugu. Etxez etxe deialdia zabalduko dugu, eta herritarren hitza hor egongo da, hortik aterako dira erabakiak. Gero informazioa etxez-etxe banatuko da. Batzarrari garrantzia eman nahi zaio, herritar guztiak gonbidatuz eta bertan herria egiten.

**Festa batzordea aipatu duzu. Udaletxean sartu eta festa antolatzen hasi behar izan duzue, presaka.**

Hauteskunde urteetan, normalean aurreko udalak antolatzen ditu festa, lantalde berriak denborarik ez baitu izaten. Kontuan hartu, jaiak ekainaren amaieran hasten direla. Aurten ordea, aurreko udalak ez dutela ezer jakin nahi esan ziguten, ez dutela festarik antolatuko. Gauzak horrela, udaletxera sartu orduko festa antolatzen hasi behar izan dugu, hiru aste epean. Esan genezake hori izan dela gure lehen proba: korrika eta presaka festa antolatzeko. Herri deialdi zabala egin genuen, eta 18-20 lagun azaldu ziren. Bakoitza arduratzen da eta horrela antolatu ditugu festa.

Mikel Beloso ◊ Gazteluko alkatea

## «Harrobiko bete lana bukatzea izango da helburuetako bat»

I. Garcia Orendain

Gaztelura ezkondu eta alkate kargua hartu du Mikel Belosok (Tolosa, 1985), Bilduren ordezkari bezala. Ilusioz eta lanerako gogoz agertu da.

**Pilotari izatetik alkate izatera; badago alde.**

Pilotari bezala nire zikloa lehenengo urteko abuztuan bukatu zen. Hala eta guztiz ere, nire bizitzak pilota munduari lotuta jarraitzen du oraindik, haurrekin ibiltzen baina Tolosan eta Ibarren. Garai aldatetarekin eta Bilduk sortu duen ilusio guzti horrekin, Gaztelun leku bat bete beharra zegoela ikusten zen. Norbaitek hartu behar zuen eta...

**Zuen kasuan, udaletxeko ardura jarraipen bat da, aurreko alkatea eta zinegotzia zuekin baitira udalean.**

Herri batzuetan, udaletxera sar-

tu direnek dena berria izango dute. Gazteluren kasuan, jarraipen bat da. Aurrez egon direnek lana gogotik egin behar izan dute, gauza batzuk zuzentzeko. Orain, aurreko alkatea eta zinegotzi bat gurekin aurkitzen dira. Guztiok lanerako gogotsu gaude.

**Zuri ere lagungarri izango zaizu, funtzionamendura egokitzeke.**

Abentura honetan sartu nintzean dena berria zen niretzat. Ez nekien nire burua honetarako prest egongo zen edo ez. Baina lehenengo alkatea eta zinegotzia ondoan edukitzeak, egia esan, gauzak asko errazten dizkizu. Edozein zalantza duzula ere, deitu edo beraiekin egoten zara. Lana egiterako garaian, beraz, guretzat ez da erabat berria.

**Zein dira lau urte hauetan herrian burutu nahi dituzuen proiektu nagusiak?**

Urteetan harrobiarekin ibili gara lanean, eta harrobiko bete lana bukatzea izango da lau urte hauetako helburuetako bat. Berrikuntza bezala, beste proiektu batzuk ere sartu ditugu.

Herriko tabernak 12 urte daramatza itxita, eta bultzada bat eman nahi diegu herriak bizitasun puntu bat izan dezan. Jendea etortzen denean, tristura puntu hori aurkitzen du, ezer hartzeko aukerarik ere ez baitago. Taberna irekitzea aztertu behar den bezala, haur eskola bat jartzea ere ikusi behar da. Bertan dauden eta egon litezkeen haurrek Tolosaraino jaitsi beharrik izan ez dezaten. Plazan haurrentzako parke baten beharra ere aipatu izan dugu.

**Plaza inguruko etxebizitzak zein egoeratan aurkitzen dira.**

Osingoieneko pisuak egin eta ad-



A. IMAZ

judikatu ziren. Sei pertsona edo bikotek hartu zituzten eta martxan jarri zen. Ondoan, bi familientzako hiru etxebizitza egiteko proiektua dago martxan. Haue-tatik bat adjudikatuta dago, bi pertsonak azaldu baitzuten interesa. Une honetan eraikitzailea aukeratu eta martxan hartzea gelditzen da.

**Beste biak egingo al dira?**

Beharren arabera egingo dira. Eskaririk balego, berriro ere zerrenda zabalduko litzateke, pixkanaka etxebizitzak betetzen joateko. **Gaztelun nola aurkitzen da herri giroa?**

Azken urteetan enfrontamenduak egon dira herri honetan. Nire ustez, iraganeko gauzak bater batean uzteko garaia da. Beste ikuspegi batekin aurrera begiratu beharra dago. Bildutik udal-txeetan parte hartzea bultzatzen da, herri guztia elkarrekin joateko. Enfrontamendu guztiak ez dira egun batekin bestera bukatuko, baina errespetuz eramaten jakin behar dugu. Herritarren artean errespetu falta hori adierazi gabe, ahalik eta hobekien moldatu behar dugu. Ea denborarekin gauzak pixka bat konpontzen diren.



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.  
**Anoeta/Aldea:** 687 410 022. anoetaldea@hitza.info.  
**Ibarraldea:** 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info.  
**Leitzaldea:** 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak  
S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko  
eta Leitzaldeko  
beste 77 eragile

**Hitza-k  
Bai  
Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:**  
Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Baliarrain,  
Belauntza, Berastegi, Elduain, Herrialdea, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

**Agenda**

**JAIK**

■ **Anoeta.** Korputz jaiak, Umeen eta mozorroen eguna: 10:30etik 13:30era ume eta gaztetxoentzako parkea plazan; 11:00etan herriko jubilatuen arteko Toka Txapelketa plazan; 16:00etan umeentzako emanaldia plazan: *Pantxika Txinparta ederra zala-parta!*; 17:00etan txokolate jatea plazan; 18:00etan Loatzo musika eskolako bandaren kontzertua plazan; 19:00etan buruhandi eta erraldioen kalejira herriko txistulariekin; 20:30ean herri afaria plazan; 22:15ean txalapartariak San Joan bezperako suaren jai iragarriko dute, on-

doren suaren inguruan San Joan zortziko kantuak abestuko dituzte eta erromeria izango da; 01:00etan Los Zopilotes Txirria-os taldearen kontzertua, plazan. Egun guztian zehar barraken salneurria merkeagoa izango da.  
■ **Tolosa.** Sanjoanak: 10:30ean Mus Txapelketa; 17:00etan txistularien kalejira antzinako erronda bidetik barrena; 18:00etan Saharako haurren harrera; 18:30ean erraldoiak eta buruhandiak eta Tolosako margolarien XLV. erakusketaren inaugurazioa; 19:30ean bertso jaialdia Zerkausian, era berean udalbatza Plaza Zaharretik ate-

rako da Arrameleko San Joan kaperako bezperetan eta arrats otoiizetan parte hartzeko; 20:00etan Berdura plazan Isidro Larrañaga Akordeoi Orkestraren kontzertua; 22:00etan San Joan sua Andre Mari plazan; 23:00etan Yukatan eta Lobo Elektriko taldeen kontzertuak plaza Berrian, ondoren Dj Puntzaka.  
■ **Abaltzisketa.** Sanjoanak: 21:30ean San Joan sua, jarraian dantza eta sokadantza herriko gazteen eskutik; 22:30ean asto lasterketa; eta ondoren, Kupela taldearen dantzaldia.  
■ **Belauntza.** Sanjoanak: 21:00etan kanpai doinuarekin

batera San Joan sua piztu eta festei hasiera emango zaie. Ondoren, iluntzetik aurrera, trikitilariak izango dira Herriko tabernan.  
**ERAKUSKETAK**  
■ **Alegia.** Garai bateko Alegiako argazkiak Jubilatuen tabernan hilabete bukaera arte.  
■ **Larraul.** Pisuak eta balantzak biltzen dituen erakusketak Ekomuseoan iraila bitarte.  
■ **Ibarra.** Ikasturtean egon diren kultur lantegietan egindako lanen erakusketak ikusi daiteke uztailearen 8a arte Kultur Etxean, 09:30etik 14:00ak arte.

**Agurrak**



**Ongi etorri Aintza!**  
Aintza jaio da!  
Zorionak Olatz eta Ilazki!!

**Farmaziak**

**GAUR**

■ **Tolosa.** Morant, R. Zabalarreta, 1. Telefonoa: 943 67 36 49.  
■ **Leitza.** Campos, M. Z. Elbarren, 52. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen enugarria adierazitako esanena eta iritzien erantzukizunik.

SEGUROS BILBAO

# Zumardi

aholkularitza integrala

Sanjoan zoriontsuak opa dizkizuegu!

Laskurain, 8 behea • TOLOSA  
Tel.: 943 65 18 78 • Tel./Faxa: 943 65 18 77

**ESTALDUREN ERABERRITZEA  
FATXADA ETA ETXEBIZITZAK  
IGELTSERITZA ORO HAR**

**PAGOLA ERAIKVNTZAK, S.L.**

Izaskun Bidea, 7 behea • 20400 TOLOSA (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 67 57 53 • Faxa: 943 67 02 33  
Sakelakoa: 606 98 11 35 - 606 98 10 80

**3008** GURE INGENIARIEN  
NEURONA GUZTIAK DITUZU ESKURA HEMEN

**5008**

**PROBATUZ GERO,  
HARTUKO DUZU**

TOLOSA MOTOR, S.A.  
PEUGEOT KONZESIONARIOA  
San Esteban auzoa, 14-A • 20400 TOLOSA

Tel.: 943 650 337 / Faxa: 943 652 938  
tolosa@tolosa.redpeugeot.com

P-3008  
P-5008

Errausketa zero tratu berria martxan!  
Errausketa labe propizatekin.

**Sanjoanak ondo pasa!**

1924  
**ECEIZA**  
TOLOSA

Pablo Gorosabel, 34 • Tel.: 943 652089  
San Frantzisko, 8 • Tel.: 943 651916  
• TOLOSA •  
posta elektronikoa: pasteceiza@euskalnet.net